

## KRONOLOGIA

Aske izatetik,  
itxaropena  
galtzera

Kongoko Errepublika Demokratikoa independente bihurtu zenetik, agintariek ez dute lortu egoera politiko egonkorrik. Lumumba lehen ministroaren garaian hasi ziren etnien arteko liskarrak, eta gatazka berpizten ari denean hil dute Kabila presidentea. Hona hemen bertan izandako une aipagarrienak:

**1960.** Europako agintariak Afrikatik ateratzen hasi ondoren, liskar bortitzak piztu ziren Kongon, eta Belgika behartu zuten independentzia ematera.

**1961.** Patrice Lumumba lehen ministroa harrapatu, torturatu eta hil zuten Joseph Mobuturen aldeko tropek. Iturri batzuen arabera, Belgika eta Estatu Batuek babestu zuten hilketa, Lumumbak ez zituelako Mendebaldearen interesak defendatu nahi.

**1965.** Mobutuk estatu kolpea eman zuen, eta botereaz jabetu zen. Zaire izena jarri zion estatuari.

**1970.** Mobutu presidente bihurtu zen, eta Mobutu Sese Seko izena hartu zuen.

**1994.** Ruandan genozidioa egin zuten hutuek, eta bertako gobernuak kezkatuta zegoen ez ote ziren Zairen bizitzeko ariko hiltzaileak eta haien jarraitzaileak. Horregatik, Zaire menpean hartu zuen Ruandak, baina Armadak eta Mobuturen aurkako gerrillariak —haien buruan Laurent Kabila— ihes egin zuten Ruandak Kinshasara bidea hartu aurretik.

**1997.** Laurent Kabila presidente bilakatu zen, Ruandak eta Ugandak Mobuturen aurka egiteko emandako babesari esker. Zaireri Kongoko Errepublika Demokratikoa izena jarri zion Kabilak.

**1998.** Ruanda eta Uganda Kabilaren aurka jarri ziren, geroz eta hutu gehiago zeudelako Kongon.

**1999.** Gerrillariak errepublikaren erdiaren kontrola hartu zuten. Urte berean, Gobernuak eta haiek su-etena adostu zuten Lusakan.

**2001.** Kabila hil zutela adierazi zuen Belgikako Atzerri ministroak asteartean.

## Oposizioaren bilera Ugandan



CRANIMER MUGERWA / AP

Laurent-Desiré Kabilaren kontrako eraso izan zen egun berean elkartu ziren Kongoko Errepublika Demokratikoko oposizioako bi erakunde nagusiak Ugandan, geroari begira euren arteko lanak «hobeto» koordinatzeko. MLC Kongoren Askapenerako Mugimenduko buru Jean Pierre Bemba —erdian— RCD Kongoko Batasun Demokratikoko buruzagi Mbusa Nyamwisi —ezkerrean— eta Tibasima Bogenurekin elkartu zen. Kampalan egindako bilaren ostean Kinshasako gobernuarekin «mintzatzen» segituko zutela adierazi zieten bi erakundeetako buruek nazioarteko hedabideei.

## JEAN OMASONDO KINSHASAKO UNIBERTSITATEKO ZIENTZIA POLITIKOETAN KATEDRADUNA

«Kabilaren hilketa ona izan daiteke  
Kongoren etorkizunerako»

Jose Mari Pastor | DONOSTIA

Kongoko egoera zuhur baina esperantzaz ikusi du Jean Omasondok. Kinshasako Unibertsitateko katedradun eta Bruselan dagoen Erdialdeko Afrikaren Ikasketa Zentroko ikerlariaren iritziz, Kabilaren heriotza onuragarria izan daiteke koalizio gobernu osatu eta herrialdeko gerra eten ahal izateko.

■ **Nor dago, zure ustez, asteartean Laurent Kabilaren kontra izandako erasoaren atzean?**

Ez da erraza erantzuna ematen, eta horren azalpena aurkitzeko Kongon, gure herrian zer gertatzen ari den begiratu besterik ez dago. Baina ni neu ez naiz harrizten Kabilari gertatu zaionaz. Normala zen, azken aldian izandako garapenari erreparatuta.

Kabilaren erregimena kontrola ezinezko itsasontzi baten modukoa zen. Oso handia zen eta, aldi berean, zulo asko zituen. Kabilak ez zuen hura kontrolatzeko modurik eta atzoko (herenegungo) gertaera horren adibidea da.

■ **Estatu kolpe saio baten berri eman zen hasieran; gero notizia kontrajarriak heldu ziren... Zer izan da azkenean?**

Ez dago oraindik esaterik zehatz-mehatz, batez ere jakinda, zenbait informazioen arabera, Kabila hil zuena ere hil egin zutela gero.

Kabilak arerio asko zituen Kongoko Errepublika Demokratikoaren barruan zein kanpoan. Dena nola gertatu den ikusita, hipotesi diferentek

## UGANDAREN ITZALA

«Kabilaren hilketari buruzko lehen berriak Ugandatik heldu ziren. Horregatik pentsa liteke bertako zerbitzu sekretuak atzean daudela»

## ETORKIZUNA

«Gerra bi egunetan buka liteke, benetan nahi izanez gero eta Mendebaldeko gobernuak ere horretarako presioa eginez gero»

daude. Tiroketen ondoren Ugandatik heldu zen lehen notizia, Kabila hilda zegoela esaten zuena. Horregatik pentsa liteke bertako Informazio Zerbitzuak horretan egon daitezkeela.

Bestetik, Kabilaren heriotza izan eta gero, Kinshasan dagoen lasaitasuna ikusita, militarrek dena ondo kontrolatuta daukatela ematen du, eta horregatik izan daiteke Kongo barruan egondako mugimendua, Armadako sektore batek bultzatua.

■ **Bizkartzain batek Kabila tirokatu izanak ezin hobeto islatzen du Kabilaren porrota.**

Bai, jendea nazkatuta zegoen eta edonork egin zezakeen estatu kolpe saioa. Kabilak oso botere sare txarrak eratu zituen, eta sare horrek eskutatik ihes egiten zion. Zibilak eta militarrek ez zeuden pozik, eta aparatuen barrutik izan zitekeen altxamendua.

Kabilak huts egin du bere inguruan talde sendo bat osa-

tzeko lanean, interes gehiegi pilatu ditu bere inguruan ezer onik irteteko, eta ondorioak orain ikusi dira.

■ **Kabila boterean egonda hiru urteetan ezin izan da bakea lortu Kongon. Zerregatik?**

Boterera heltzearekin batera jendeak gerra bukatzeko zituenean esperantza guztiak zapuztu ditu Kabilak. Ez da gai izan arazoei aurre egiteko, eta beti erabili izan du gerra herria kontrolatu eta botereari eusteko. Gero «abertzaleei» egin die kanpoko erasoekin kontrako egiteko, baina gerra berak bultzatzen segitu du.

■ **Zer gerta daiteke orain, Kabilaren ondoren?**

Inoren hilketa ez da pozgarria, baina kasu honetan Kabilarena oso gauza ona izan daiteke Kongoko Errepublika Demokratikoaren etorkizunarentzat, herrialdea dagoen egoera nahasitik behingoz ateratzeko. Izan ere, hiru urte hauetan hondamendia eta gerra baino ez da egon bertan;

ez zegoen etorkizunik, jendeak ez zeukan esperantzarik.

Orain aukera polita izan daiteke aurrera egiteko. Benetako gogo baldin badago, koalizio gobernu osa liteke, oreka mantentzen saiatuz, Kabilaren aparatuko jendea eta oposizioako kideak ere sartuz.

Gerra bi egunetan amaitzeko benetan nahi izanez gero, eta Mendebaldeak ere horretan presioa eginez gero.

■ **Oposizioa prest egongo litzateke gaur egun horretan parte hartzeko?**

Oposizioa, batez ere, RCD (Kongoko Batasun Demokratikoa) aliantzaren inguruan elkartzen dena, oso banaturik egon da. Ruandaren eraginpeko oposizioa zatiturik dago, ez du kohesiorik, Ruandan ere botere banaketa dagoelako, azken batez.

Ugandatik ari den oposizioa, aldiz, hobeto elkarturik dago. Kampalak hobeto kontrolatzen du multzo hori. Dena den, oposizioako bi adar nagusi horiek nekaturik daude, gerra utzi nahi dute, nire ustez, eta Kabilaren heriotza aitzakia ona izan daiteke hitz egiten hasteko. Gobernu koalizioa eginez gero, bizpahiru ministro eman lekizkioke RCDri, denon artean hauteskundeak prestatzen hasteko, eta Kabilaren aldekoen ere lekua egin beharko litzateke.

Ikusi egin beharko da, baina, Ruandako Gobernuak zer esaten duen. Izan ere, hor interes handiak nahasirik daude, interes politiko eta ekonomiko handiak. Nazioarteko komunitateak eta Mendebaldeko gobernuak zeregin handia izango dute gatazkako alde guztiak presionatu eta bakearen beharraz konbentzitzeko.